


## Euskadiko gazteen % 11,5ek boluntario-lanak egiten dituzte


### ***Boluntario-lanetan parte hartzea zabaldu egin da azken urteotan gazteen artean***

**Boluntarioen Nazioarteko Eguna** abenduaren 5ean ospatzen dela eta, Euskadiko gazteek boluntariotza-jardueratan parte hartzeari buruzko datu batzuk kaleratzen ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#).


2016an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 11,5ek adierazi dute gaur egun boluntario-lanak egiten dituztela. Beste % 19,1ek esan du orain ez dituztela egiten baina lehen egiten zituztela, beraz, ondoriozta dezakegu Euskadiko hamar gaztetik hiruk (% 30,6k) badutela nolabaiteko eskarmentua horrelako lan boluntarioetan.



Gaur egun boluntariotza-lanak edo jarduerak egiten dituztenak eta, nahiz eta orain ez egin, lehen egin izan dituztenak kontuan hartzen baditugu eta horien bilakaera aztertu, ikus dezakegu 2008tik 2016ra handitu egin dela bai egungo parte-hartzea, bai honelako lanetan eskarmentua duten gazteen portzentajea.



Gaur egun boluntario gisa lan egiten dutenengan jartzen badugu arreta, ikusten dugu nesken artean zabalduago dagoela boluntariotza mutilen artean baino (% 15,1 eta % 8,0, hurrenez hurren). Erdiko adin-taldeko gazteak (20 eta 24 urte artekoak, alegia) dira boluntariotzan gehien aritzen direnak (% 15,1). Bizkaiko gazteen artean zertxobait zabalduago dago boluntariotza (% 15,3) Gipuzkoako edo Arabako gazteen artean baino (% 9,6 eta % 8,8, hurrenez hurren).



Datuok "Euskadiko gazteak" ikerketa-bildumatik atera dira. Ikerketa horiek Gazteen Euskal Behatokiak burutzen ditu lau urtean behin eta orain 2016koa ari gara lantzen. Ikerketa egin ahal izateko behatokiak hainbat gai jorratzen dituen inkesta bat diseinatu du eta Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri galdetu.